

ERAIKUNTZAREN DESKRIBAPENA

Birgaitze lan honetan eskuhartzeko modua erabakitzerako orduan ahalik eta inpaktu txikiena eragitea izan da lehen helburua. Jatorrizko eraikina ahalik eta gutxiena ukitzeaz gain txertatuko den materialak ere errespetuzko jarrera izatea bilatu da. "Zirujia" interbentzioa eskala guztietan eman nahi izan da, bai auzo mailan, eraikinaren konfigurazio bolumetrikotan eta baita eraikuntza sisteman ere.

Premisa guzti horiek beteko dituen materiala zura dela ondorioztatu da, laminatua baina batez ere kontralaminatua: material berriztatzailea, teknologikoa, industrializazioari esker zehatza eta azkarra, ingurugiroarekiko inpaktu gutxikoa...

Eraikuntza teknika zahar eta berrien arteko elkarbitza posible dela lantzeko ariketa bezala planteatu da, etorkizuneko arkitekturan birgaitze alorrean dagoen egoera oparoaren gogoeta gisa.

Bi multzoetan bana daitezke eraikinean emango diren interbentzioak:

*zaharberritea

ZAHARBERRITZE ARINA, mantentze lanak:

Gangen segurtasuna, estatikaren frogapen eta finkapena.

Harri/igeltsu/fresko/elementu metalikoen birgaitzea.

> elementu historikoetan: eliza ohia.

jangela ohia (eliza)

via Guelfako fatxadan

klaustroan

ZAHARBERRITZE SAKONA:

Plangintzatik kanpo geratutako zatien eraispena.

Hutsarteak ireki (dintelatu) edo itxi (tapiatu).

Espazioen ingurutzailak isolatu.

Akabera uniformizatu: zoruetan mortero autonibelante leundua, hormetan erreboko gris talotxatua.

*obra berria

zimendua:

Bolumentria berriak lurraekin kontaktua gune oso puntualetan badu ere, gutxi horietan egituraren abiatzea hormigoizko azaleko zapataz egingo da. 0'5zentimetroko altueran parapetoaren amaiera eta egurrezko egituraren hasiera emango da. Egoin® fabrikak produktuaren katalogoan aholkatzen duen lotura sistemarekin gauzatuko da, altzairuzko pletina eta torloju bidez, alegia (detailuetan zehaztuko da).

zorua

Behe oineko forjatua lurra aldatzen den guneetan (sarrerako bolumena) eta patio zentralako bolumen erantsian **Cavity Cupolex®** iglu bidez eraikiko da. Lehendabizikoa maldan eraiki behar denez 100mm eta 400mm bitarteko igluak erabiliko dira hormigoia aurrezteko helburuz.

Eraikin barruan, ordea, aurrez forjatua existitzen denez honi isolamendua eta mortero autonibelanteko geruza gehituko zaio azalera berdintzeko.


Patioan legarra ezarriko da, aglomerante baten bidez finkatua. Urak **ULMA®** enpresaren drenai kanalaz aterako dira, aurreexistenzien ondorioz altuera gutxi hartu dezakeenez mini sistemako m-150 modelo erabiliko da.



egitura:

Egituraren konfigurazioa osatzeko zuraren bi bariante erabili dira: zur laminatua (GL28h) eta zur kontralaminatua.

Azken hauek etxe ugariak izan daitezke, **EGOIN®** etxeokak erabiltzea erabaki da Euskal enpresa dugulako, produktuaren kalitate eta esperientziagatik eta eskuragarri duten katalogo, prontuario eta informazio guztiagatik. Florentzian eraiki izan beharko bagenu, inguruan gaian aditua den enpresarik dagoen bilatuko litzateke, horrela garraio gastuak murriztuko liratekelarik (km0). Hala ere guztiz industrializaturiko produktua denez distantziaren eragozpena onargarria izan daiteke.



Egurrezko elementu berriaren eta manposteriazko eraikin zaharraren arteko lotura elementu metalikoen bidez emango da. Pletina metalikoaren anklaiak ziurtatzeko horman hormigoizko **batatxea** egingo da, harria heterogeneoa denez kargak era homogeenan banatuko direla bermatzeko. Anklaiak ainguraketa buloiez egingo da, perno horietara pletina soldatuko delarik. Altzairuzko pletina egurraren muturrean egindako ebakiduran kokatuko da, torloju bidez finkatuz. Perimetro mugatua dugunez, habe eta forjatu handiak kokatzea posible izateko **batatxeen** zulaketa margen bat gehituz egingo da.

Argia txikiagoa duten espazioetan eta, beraz, CLT panela forjatu gisa haberik gabe kokatuko denetan, zuzenean panelen lotura batatxe linealari anklatutako mentsulen gainean egingo da, 15 zm horman semi-enpotratuturik.

Ahal den neurrian egitura bistan lagako da.

Forjatua:

Bi forjatu tipo identifikatu dira: Kanpoaldearekin kontaktua dutenak eta eraikinaren barnealdean geratzen direnak.

Isolamendu eskaerak beteko direla bermatzeko eta kantua murrizteko **EGO_CLT_MIX** panelak erabiliko dira kanpoaldearekin kontaktua duten forjatuetan. Panel hauek egiturazko baldintza berberak jasan ahal izateko dimentsionatuko dira, baina barnean zurezko fibrazko isolamenduz beterik etorriko dira fabrikatik. Panel hauek ezau-garri mekaniko, termiko eta akustiko hobeak ematen dituzte azalera unitateko egur bolumen berdinentzat. **EGO_CLT_MIX_300** etik beherako panelak izango dira eta materialaren optimizaziorako tokian tokiko kalkulua eginez ajustatuko dira.

ERAIKUNTZAREN KODE TEKNIKOAK: OSASUNGARRITASUNA justifikazioa

CTE_DB_HS1 Hezetasunaren aurkako babesa.

1. ALDERDI OROKORRAK

1.1 APLIKAZIO-EREMUA

1. EKT honen aplikazio-esparru orokorrean jasotako eraikin guztietako lurrarekin kontaktua duten hormei eta zoruei eta kanpoko airearekin kontaktua duten itxiturei (fatxadak eta estalkiak) aplikatu behar zaie atal hau. *Zoru goratuak* lurrarekin kontaktua duten zorutzat hartzen dira. Aldameneko orubeetan eraiki ez delako edo aldamenekoena baino azalera handiagoa dutelako estali gabe geratuko diren mehelinak fatxadak direla jotzen da. Terrazen eta balkoien zoruak estalkiak direla jotzen da.
2. Azaleko eta zirrikietako kondentsazio-hezetasunen muga «OD-HE Energia aurrezte» dokumentuko HE 1 atalean (Energia-eskaria mugatzea) ezarritakoari jarraikiz egiaztatuko da.

1.2 EGIAZTAPEN PROZEDURA

1. Atal hau aplikatzeko, jarraian agertzen den sekuentzia bete behar da.
2. 2. ataleko diseinu-baldintza hauek betetzea, eraikuntza-elementuei dagozkienak:
 - a) hormak:
 - i) haien ezaugarriek bat etorri behar dute 2.1.2 ataleko zehaztapenekin, 2.1.1 atalean eskatutako *iragazgaitasun*-mailaren arabera;
 - ii) haien puntu berezien ezaugarriek bat etorri behar dute 2.1.3 atalean zehaztutakoekin;
 - b) zoruak:
 - i) haien ezaugarriek bat etorri behar dute, 2.2.2 ataleko zehaztapenekin, 2.2.1 atalean eskatutako *iragazgaitasun*-mailaren arabera;
 - ii) haien puntu berezien ezaugarriek bat etorri behar dute 2.2.3 atalean zehaztutakoekin;
 - c) fatxadak:
 - i) fatxaden ezaugarriek bat etorri behar dute 2.3.2 ataleko zehaztapenekin, 2.3.1 atalean eskatutako *iragazgaitasun*-mailaren arabera;
 - ii) haien puntu berezien ezaugarriek bat etorri behar dute 2.3.3 atalean zehaztutakoekin;
 - d) estalkiak:
 - i) estalkien ezaugarriek bat etorri behar dute 2.4.2 ataleko zehaztapenekin;
 - ii) haien *osagaien* ezaugarriek bat etorri behar dute 2.4.3 atalean zehaztutakoekin;
 - iii) haien puntu berezien ezaugarriek bat etorri behar dute 2.4.4 atalean zehaztutakoekin;
3. Drainatze-hodien, *horma partzialki estankoetan* iragazitako urak jasotzeko kanaleten eta xukatzeko ponpen neurriei dagozkien baldintzak, 3. atalean zehaztuak, betetzea.

4. Eraikuntza-produktuei dagozkien baldintzak, 4. atalekoak, betetzea.
5. Eraikuntza-baldintzak, 5. atalean zehaztuak, betetzea.
6. Mantentze- eta kontserbazio-lanei dagozkien baldintzak, 6. atalekoak, betetzea.

2. DISEINUA

2.1 HORMAK

2.1.1 Iragazgaitasun-maila

1. Lurrarekin kontaktua duten hormei eskatzen zaien gutxieneko iragazgaitasun-maila, lurreko eta jariatzetako uraren aurkakoa, 2.1 taulan lortzen da, uraren presentziaren eta lurraren iragazkortasun-koefizientearen arabera.
2. Uraren presentzia izan daiteke:
 - a) txikia, lurrarekin kontaktua duen zoruaren azpiko aldea maila freatikoaren gainetik dagoenean;
 - b) ertaina, lurrarekin kontaktua duen zoruaren azpiko aldea maila freatikoaren sakonera berean dagoenean edo haren azpitik bi metro baino gutxiagora;
 - c) handia, lurrarekin kontaktua duen zoruaren azpiko aldea maila freatikoaren azpitik bi metro edo gehiagora dagoenean;

Tabla 2.1 Grado de impermeabilidad mínimo exigido a los muros

Presencia de agua	Coeficiente de permeabilidad del terreno		
	$K_s \geq 10^{-2}$ cm/s	$10^{-5} < K_s < 10^{-2}$ cm/s	$K_s \leq 10^{-5}$ cm/s
Alta	5	5	4
Media	3	2	2
Baja	1	1	1

Eraikinaren fitxa urbanistikoan “Pericolosità idraulica PI3 elevata” gisa dago klasifikaturik, hau da: arrisku handikoa, T=200 urteko denbora tartean urperatutako guneei dagokio, uraren altura $h > 0,9m$ korrontearen abiadura edozein delarik eta $h < 0,9m$ ur korrontearak $v \geq 2$ ms⁻¹ko abiadura duenean.

Maila freatiko zehatza jakin ezin izan badugu ere gertuko PI2 eraikin batzuen fitxetan -7mko altueran dagoela jakin ahal izan dugu eta horrekin hipotetizatuko: aztergai dugun eraikin zatiaren bolumeneko sotoa -3'5mtan dago, beraz arrisku ertaina izango du.

2.1.2 Eraikuntza-irtenbideen baldintzak

1. Horma-motaren, iragazgaitasun-motaren eta *iragazgaitasun-mailaren* arabera *eraikuntza-irtenbide* bakoitzari eskatzen zaizkion baldintzak 2.2 taulatik lortzen dira. Lauki belztuak irtenbide ez-onargarriek dagozkie; lauki zuriak, berriz, dagozkien iragazgaitasun-mailentzat inolako baldintzarik eskatzen ez zaien irtenbideei.

2. Hona hemen baldintzak, multzo homogeneotan sailkatuak.

Tabla 2.2 Condiciones de las soluciones de muro

	Muro de gravedad			Muro flexorresistente			Muro pantalla		
	Imp. interior	Imp. exterior	Parcialmente estanco	Imp. interior	Imp. exterior	Parcialmente estanco	Imp. interior	Imp. exterior	Parcialmente estanco
≤1	I2+D1+D5	I2+I3+D1+D5	V1	C1+I2+D1+D5	I2+I3+D1+D5	V1	C2+I2+D1+D5	C2+I2+D1+D5	
≤2	C3+I1+D1+D3 ⁽³⁾	I1+I3+D1+D3	D4+V1	C1+C3+I1+D1+D3	I1+I3+D1+D3	D4+V1	C1+C2+I1	C2+I1	D4+V1
≤3	C3+I1+D1+D3 ⁽³⁾	I1+I3+D1+D3	D4+V1	C1+C3+I1+D1+D3 ⁽²⁾	I1+I3+D1+D3	D4+V1	C1+C2+I1	C2+I1	D4+V1
≤4		I1+I3+D1+D3	D4+V1		I1+I3+D1+D3	D4+V1	C1+C2+I1	C2+I1	D4+V1
≤5		I1+I3+D1+D2+D3	D4+V1 ⁽¹⁾		I1+I3+D1+D2+D3	D4+V1	C1+C2+I1	C2+I1	D4+V1

- (1) Solución no aceptable para más de un sótano.
 (2) Solución no aceptable para más de dos sótanos.
 (3) Solución no aceptable para más de tres sótanos.

Birgaitze honetan sotoko horma iadanik existentea denez, ezin izango dugu bere material eta ezaugarrietan eragin baina bai bera babestu. Horma pantalla bat dela kontsideratuko da eta "muro parcialmente estanco" gisa babestuko dugu: kanpo orri erresistente batez (existentea), aire ganberaz eta barne orri batez osatuko da. Horma ez da impermeabilizatuko baizik eta terrenoaren urari pasatzen utziko zaio, aire ganberan jaso eta ebakutzeko.

Datuen gabeziagatik ipermabilidade maila zehatza ez dakigun arren 2 edo 3koa izango dela argi dago eta biek soluzio berbera eskatzen dute: D4+V1

D) DRENAIA ETA EBAKUAZIOA:

D4. Hormaren ganbaran ura jasotzeko hodixkak eraiki beharko dira eta saneamendu sarera edo beste edozein ur bilketa sistemara konektatuko dira bere ondoreko berreraibilerarako. Konexio hori hodixken gainetik kokatua dagoen kasuetan, bi bonbazo bonbeo ganbara instalatuko da.

V) GANBERAREN AIREZTAPENA:

V1. Barrualdeko orriaren hasieran eta bukaeran, aireztatzeko irekidurak jarri behar dira, eta, irekidura horiek zer lokaletara ematen duten, hura aireztatu egin behar da, azalera erabilgarriaren m2 bakoitzeko 0,7 l/s-ko emariarekin, gutxienez.

Aireztapen-irekidura horien % 50 barrualdeko orriaren beheko aldean jarriko da, eta beste % 50 goiko aldean, sabaiaren ondoan; modu erregularrean jarriko dira, hiruzuloka. Baldintza hau bete behar du irekiduren azalera eraginkor osoaren (Ss, cm2-tan) eta barrualdeko orriaren azalaren (Ah, m2-tan) arteko erlazioak:

$$30 > \frac{S_s}{A_h} > 10 \quad (2.1)$$

Ondoz ondoko aireztapen-irekiduren arteko distantziak ez du 5 m baino handiagoa izan behar.

Manposteriazko sotoko hormaren ondoren 20 cm-ko aire ganbera bat utzi da, ondoren adreiluzko horma bat eta isolamendua jarri da, Pladur®az amaituz. Horrela instalakuntza gela eta biltegi-tako hormetan kondentsazioak saihestu nahi izan dira. Hormaren azpian dreinaia tutu bat jarri da, zeinak hormatik jaisten den ur guztia jaso eta sare orokorrera eramango duen, dreinaien urarekin batera bonbeatu ondoren.

2.1.3 Puntu berezien baldintzak

1. Gorde beharrekoak dira errefortzu- eta akabera-bandak, jarraitutasun- edo eten-bandak eta, orobat, diseinuari eragiten dion beste edozein banda antolatze-ko kondizioak, erabilitako iragazgaizpen-sistemari dagozkionak.

2.1.3.1 HORMAREN ETA FATXADAREN ARTEKO ELKARGUNEAK

- Horma barrualdetik iragazgaizten denean, haren gaineko fatxada hasten den gunean, iragazgaizgarria hormaren lodiera osoan luzatu behar da, kanpoko zoru-mailaren gainetik 15 cm baino gehiagora arte, erabilitako hesi iragazgaiztaren material bereko errefortzu-banda baten gainean; banda horrek hormaren paramentutik behera luzatu behar du, gutxienez 20 cm. Hesi iragazgaiztaren gainean erregulatze-morterozko geruza bat jarri behar da, 2 cm-ko lodierakoa, gutxienez.
- Kasu berean, horma xaflekin iragazgaizten denean, iragazgaizgarriaren eta mortero-geruzaren artean errefortzu-bandaren material bereko akabera-banda bat itsatsi behar da, eta hormaren paramentuan bertikalki luzatu behar da, errefortzu-bandaren beheko ertzetik behera 10 cm izan arte, gutxienez (ikus 2.1 irudia).




Figura 2.1 Ejemplo de encuentro de un muro impermeabilizado por el interior con lámina con una fachada

- Horma kanpoaldetik iragazgaizten denean, haren gaineko fatxada hasten den gunean, iragazgaizgarria kanpoko zoru-mailaren gainetik 15 cm baino gehiagora arte luzatu behar da, eta iragazgaizgarriaren goiko errematea 2.4.4.1.2 atalean zehaztu bezala egin behar da, edo zokalo bat jarri, 2.3.3.2 atalean zehaztutakoaren arabera.
- Gorde beharrekoak dira errefortzu- eta akabera-bandak eta, orobat, jarraitutasun- edo eten-bandak antolatze-ko kondizioak, erabilitako iragazgaizpen-sistemari dagozkionak.

Sotoko horma ia guztiak guztiz lurperaturik dauden arren, patioko fatxadarekin kontaktua duen horma isolatzean puntu honetan aipatutakoak kontuan izango dira. Sotoko hormari gehituko zaion hormigoizko arrankearen eta egurrezko egituraren arteko elkargunea arreta handiz isolatuko da, 0,5zmko alturan.

2.1.3.2 HORMAREN ETA BARNEALDEA ZEDARRITZEKO ELEMENTUEN ARTEKO ELKARGUNEAK

- Horma barnealdetik iragazgaizten denean, barnealdea zedarritzeko elementuak horma iragazgaiztu ondoren eraiki behar dira, eta hormaren eta barnealdea zedarritzeko elementu bakoitzaren artean material elastikoz zigitatutako juntura bat jarriko da; juntura horrek, material iragazgarriarekin elkartu behar izanez gero, harekin bateragarria izan behar du.

Sotoko barne banaketak egiteko erabiliko diren hormigoizko blokeak hormaren akaberaren pladurretik abiatuko dira, inolaz ere aire ganbera barrutik.

2.1.3.3 EROANBIDEAK PASATZEKO MODUA

- Babes-hodiak haien eta eroanbideen artean behar besteko tartea izateko moduan jarriko dira, exekuzio-tolerantzia izan dadin eta hormaren eta eroanbidearen artean izan daitezkeen mugimendu diferentzialerako aukera izan dadin.
- Eroanbidea elementu malguekin finkatuko da horman.
- Hormaren eta babes-hodiaren artean, iragazgaizgarri bat jarri behar da, eta babes-hodiaren eta eroanbidearen arteko tartea profil hedagarri batekin edo konpresioarekiko erresistentea den mastika elastiko batekin zigitatu behar da.

Tutuak pasatzeko neoprenozko junta elastikoak erabili dira.

2.1.3.4 IZKINAK ETA TXOKOAK

- Bi plano iragazgaiztuen arteko elkarguneetan, erabili den iragazgaizgarriaren material bereko errefortzu-banda edo geruza bat jarri behar da, gutxienez 15 cm-ko zabalerakoa, ertzean zentratua.
- Errefortzu-bandak hormaren iragazgaizgarria baino lehen jartzen direnean, inprimazio bat emango zaie bande, eta ondoren euskarriari itsatsiko zaizkio.

2.2 ZORUAK

2.2.1 Iragazgaiztasun-maila

- Lurrarekin kontaktua duten zoruei eskatzen zaien gutxieneko *iragazgaiztasun-maila*, lurreko eta jariatzeetako uraren aurkakoa, 2.3 taulan lortzen da, uraren presentziaren (2.1.1 atalean oinarrituz zehaztua) eta lurraren iragazkortasun-koefizientearen arabera.

Tabla 2.3 Grado de impermeabilidad mínimo exigido a los suelos

Presencia de agua	Coeficiente de permeabilidad del terreno	
	$K_s > 10^{-5}$ cm/s	$K_s \leq 10^{-5}$ cm/s
Alta	5	4
Media	4	3
Baja	2	1

Kalkulua obra berrian eraikiko den solera berri bakarrarekin egingo da. Gainontzeko forjatuetan aurrez existenteak direnez ezin baita haietan esku hartu.

Solera hori kale kotan dago eta, beraz, arrisku baxua izango luke. Hori Kontuan izanik eta arroaren iragazgaiztasun koefizientea $K_s > 10^{-5}$ cm/s dela jakinez, 2ko iragazgaiztasun maila lortu beharko dute.

2.2.2 Eraikuntza irtenbideen baldintza

- Horma motaren, zoru motaren, lurtean egiten den esku-hartze motaren eta *iragazgaiztasun-mailaren* arabera *eraikuntza-irtenbide* bakoitzari eskatzen zaizkion baldintzak 2.4 taulatik lortzen dira. Lauki belztuak irtenbide ez-onargarriei dagozkie; lauki zuriak, aldiz, dagozkien iragazgaiztasun-mailentzat inolako baldintzarik eskatzen ez zaien irtenbideei.

Grado de impermeabilidad	Muro pantalla								
	Suelo elevado			Solera			Placa		
	Sub-base	Inyecciones	Sin intervención	Sub-base	Inyecciones	Sin intervención	Sub-base	Inyecciones	Sin intervención
1			V1		D1	C2+C3+D1			C2+C3+D1
2			V1	C2+C3	C2+C3+D1	C2+C3+D1	C2+C3	C2+C3+D1	C2+C3+D1
3	S3+V1	S3+V1	S3+V1	C1+C2+C3+D1+P2+S2+S3	C1+C2+C3+D1+P2+S2+S3	C1+C2+C3+D1+D4+P2+S2+S3	C1+C2+C3+D1+D2+D4+P2+S2+S3	C1+C2+C3+D1+D2+P2+S2+S3	C1+C2+C3+D1+D2+D4+P2+S2+S3
4	S3+V1	D4+S3+V1	D3+D4+S3+V1	C2+C3+D1+S2+S3	C2+C3+D1+S2+S3	C1+C3+I1+D2+D3+P1+S2+S3	C2+C3+S2+S3	C2+C3+D1+D2+S2+S3	C1+C2+C3+I1+D1+D2+D3+D4+P1+S2+S3
5	S3+V1	D3+D4+S3+V1		C2+C3+D1+P2+S2+S3	C2+C3+D1+P2+S2+S3	C1+C2+C3+I1+D1+D2+D3+D4+P1+P2+S2+S3	C2+C3+P2+S2+S3	C2+C3+D1+D2+P2+S2+S3	C1+C2+C3+I1+D1+D2+D3+D4+P1+P2+S2+S3

(C2+C3)

- Hona hemen baldintzak, multzo homogeneotan sailkatuturik.

C) ZORUAREN OSAERA:

C2. Zorua *in situ* eraikitzen denean, uzurtze txikiko hormigoia erabili behar da.

C3. Zorua hidrofugazio osagarri bat egin behar da, haren gainazal amaituaren gainean poroak betetzeko produktu likido bat emanez.

2.2 FATXADAK

Eraikina Florentzia (IT)n kokatzen bada ere ariketa hau egiteko Espainiako Eraikuntzaren Kode Teknikoa eta legedia bete behar duenez asimilazioz Girona hartu da erreferentzi-hiri bezala, klima eta altuera geografikoaren antzekotasunengaitik.

2.3.1 Iragazgaitasun maila

1. Prezipitazioak ez sartzeko fatxadei eskatzen zaien gutxieneko iragazgaitasun-maila 2.5 taulan ezarrita dago, era kina dagoen tokiari dagokion batez bestekoen zona plubiometrikoaren eta haizearekiko esposizio-mailaren arabera. Parametro horiek honela zehazten dira:

- batez bestekoen zona plubiometrikoa 2.4 iruditik lortzen da;
- haizearekiko esposizio-maila 2.6 taulatik lortzen da, eta faktore hauen arabera zehazten da: eraikinaren garaiera lurrarekiko, kokalekuari dagokion zona eolika (2.5 iruditik lortutakoa) eta eraikina dagoen inguru mota, zeina, EgS oinarritzko dokumentuan ezarritako sailkapenaren arabera, I., II. edo III. motako lurra denean E0 izango baita, eta gainerako kasuetan, berriz, E1.

- I. motako lurra: Itsas bazterra edo laku-bazterra, haizearen norabidean gutxienez 5 km-ko ur-zabaleko hedadura duena.
- II. motako lurra: Landa-lur laua, oztopo edo zuhaitzi nabarmenik gabekoa.
- III. motako lurra: Landa-eremu malkartsua edo laua, zenbait oztopo bakan dituena, hala nola zuhaitzak edo eraikin txikiak.
- IV. motako lurra: Hirigunea, industriagunea edo basogunea.
- V. motako lurra: Hiri handietako negozioguneak, eraikin altu ugariak.

Tabla 2.5 Grado de impermeabilidad mínimo exigido a las fachadas

Grado de exposición al viento	V1	Zona pluviométrica de promedios				
		I	II	III	IV	V
V1	5	5	4	3	2	
V2	5	4	3	3	2	
V3	5	4	3	2	1	




Figura 2.4 Zonas pluviométricas de promedios en función del índice pluviométrico anual

Tabla 2.6 Grado de exposición al viento

Altura del edificio en m	Clase del entorno del edificio					
	E1			E0		
	Zona eólica			Zona eólica		
≤15	A	B	C	A	B	C
16 - 40	V3	V3	V3	V2	V2	V2
41 - 100 ⁽¹⁾	V3	V2	V2	V2	V2	V1
	V2	V2	V2	V1	V1	V1

⁽¹⁾ Para edificios de más de 100 m de altura y para aquellos que están próximos a un desnivel muy pronunciado, el grado de exposición al viento debe ser estudiada según lo dispuesto en el DB-SE-AE.




Figura 2.5 Zonas eólicas

2.3.2 Eraikuntza soluzioen baldintzak

1. Kanpoko estaldura izatearen ala ez izatearen eta iragazgaitasun-mailaren arabera eraikuntza-irtenbide bakoitzari eskatzen zaizkion baldintzak 2.7 taulatik lortzen dira. Zenbait kasutan, baldintza horiek bakarrik dira; beste batzuetan, berriz, hautazko baldintza multzoak daude.

Tabla 2.7 Condiciones de las soluciones de fachada

		Con revestimiento exterior				Sin revestimiento exterior			
Grado de impermeabilidad	≤1	R1+C1 ⁽¹⁾				C1 ⁽¹⁾ +J1+N1			
	≤2					B1+C1+J1+N1	C2+H1+J1+N1	C2+J2+N2	C1 ⁽¹⁾ +H1+J2+N2
	≤3	R1+B1+C1	R1+C2			B2+C1+J1+N1	B1+C2+H1+J1+N1	B1+C2+J2+N2	B1+C1+H1+J2+N2
	≤4	R1+B2+C1	R1+B1+C2	R2+C1 ⁽¹⁾			B2+C2+H1+J1+N1	B2+C2+J2+N2	B2+C1+H1+J2+N2
	≤5	R3+C1	B3+C1	R1+B2+C2	R2+B1+C1	B3+C1			

⁽¹⁾ Cuando la fachada sea de una sola hoja, debe utilizarse C2.

2. Hona hemen baldintzak, multzo homogeneousan sailkatuta. Multzo bakoitzean, baldintza izendatzeko zenbakiak prestazio-maila adierazten du: zenbat eta zenbaki handiagoa, prestazio hobea. Horrenbestez, taulan, edozein baldintzak ordezkatu dezake bere multzokoa baino izendapen-zenbaki txikiagoa duen edozein baldintza.

Sarrerako aluminiozko fatxada arinean:

R1+B1+C1 edo R1+C2, bi aukerak baloratuko dira:

R) Kanpoko estaldurak ura sartzen ez uzteko duen erresistentzia:

R1. Kanpoko estaldurak ura sartzen ez uzteko erresistentzia ertaina izan behar du, gutxienez.

Halako erresistentziaduntzat jotzen dira honako hauek:

— estaldura jarraituak, ezaugarri hauek badituzte:

- 10-15 mm bitarteko lodiera, plastikozko geruza mehe batez egindako akaberakoak izan ezean;
- egonkortasuna bermatzeko bezain itsatsia egotea euskarrira;
- lurrunarekiko iragazkortasun nahikoa izatea haren eta orri nagusiaren artean lurruna metatzeak eragindako narriadura ekiditeko;
- euskarriaren mugimenduetara moldatzea eta pitzaduraren aurrean portaera onargarria izatea;
- isolatzailea orri nagusiaren kanpoaldean duten fatxadetan jartzen denean, isolatzailearekiko bateragarritasun kimikoa izatea eta beira-zuntzeko edo poliesterezko mailasare batez egindako armadura bat jartzea.

B) Uraren barneratzearen aurkako hesiaren erresistentzia filtrazioarekiko:

B1. Gutxienez erresistentzia ertaineko filtrazioaren aurkako barrera bat izan behar du. Honako elementuak kontsideratzen dira halakoak: - aireztatu gabeko aire ganbera – orri nagusiaren barne azalean ezarritako isolatzaile ez hidrofila.

Printzipioz fatxadak orri nagusiaren barnealdean ez darama isolatzaile egurren bistan uzteko intentzioaz, legeak hala eskatzen badu proiektua alda daitezkeen arren isolatzaile ez hidrofila jarri (pladurrez babesturiko arroka-ile).

C) Orri nagusiaren osaera:

C1. Lodiera ertaineko orri nagusi bat erabili behar da, gutxienez. Halakotzat jotzen da fabrika-obra bat, morteroz hartua, ezaugarri hauek dituen:

- ½ oin zeramikazko adreilua; zulatua edo trinkoa izan behar du kanpoko estaldurarik ez dagoenean edo kanpoko estaldura eten bat edo kanpoko isolatzaile bat mekanikoki finkaturik dagoenean;
- 12 cm zeramikazko bloke, hormigoizko bloke edo harri natural.

C2. Lodiera altuko orri nagusia erabili behar da. Halakotzat jotzen da fabrika-obra bat, morteroz hartua, ezaugarri hauek dituen: - zeramikazko adreilu oin bat, zulatua edo trinkoa izan behar du kanpoko estaldurarik ez dagoenean edo kanpoko estaldura eten bat edo kanpoko isolatzaile bat mekanikoki finkaturik dagoenean; - 24 cm zeramikazko bloke, hormigoizko bloke edo harri natural.

Horri nagusia CLT panelez egin da 24cmkoa, material teknologikoki oso garatuaz ari garenez eta eskatzen den lodiera betetzen denez, beharrak asetzen dituela ondorioztatu da.

Gainontzeko fatxadetan (patioa + zaharberriak): B2+C1+J1+N1

B2. Ura sartzen ez uzteko erresistentzia handiko hesi bat jarri behar da, gutxienez. Mota horretakotzat hartzen dira honako hauek:

- aire-ganbera aireztatu gabea eta isolatzaile ez hidrofila, orri nagusiaren barnealdean jarriak, isolatzailearen kanpoko aldean delarik ganbera;
- isolatzaile ez hidrofila, orri nagusiaren kanpoaldean jarria.

C1. Aurrez aipatua.

J) Orri nagusia osatzen duten piezen arteko junturek ura sartzen ez uzteko duten erresistentzia:

J1. Ura sartzen ez uzteko erresistentzia ertaina izan behar dute, gutxienez, junturek. Halakotzat jotzen dira morterozko juntura etenik gabeak, hormigoizko blokeen junturen kasuan izan ezik, horiek orriaren erdialdean eteten baitira;

N) Orri nagusiaren barrualdeko erdiko estaldurak ura sartzen ez uzteko duen erresistentzia:

N1. Ura sartzen ez uzteko erresistentzia ertaina duen estaldura bat erabili behar da, gutxienez. Gutxienez 10 mm-ko lodiera duen morterozko zarpiatu bat hartzen da halakotzat.

2.2.3 Puntu berezien baldintzak

1. Gorde beharrekoak dira errefortzu- eta akabera-bandak eta, orobat, jarraitutasun- edo eten-bandak antolatze baldintzak, erabilitako iragazgaizpen-sistemari dagozkionak.

2.2.3.1 DILATAZIO-JUNTURAK

1. Orri nagusian dilatazio-junturak jarriko dira, halako moldez non egitura-juntura bakoitzak bat egingo baitu haietako batekin, eta ondoz ondoko dilatazio-junturen arteko distantzia gehienez 2.1 taulan agertutakoa izango baita (eutsitako fabrika-obren mugimendu-junturen arteko distantzia, «EgS-F Egituren segurtasuna: Fabrika» oinarritzko dokumentukoa).

2. Orri nagusiaren dilatazio-junturatan zigitatzaile bat jarri behar da, junturan sartutako betegarri baten gainean. Betegarri eta zigitatzaileen materialek behar adinako elastikotasuna eta itsasgarritasuna izan behar dute orriari aurreikusitako mugimenduak absorbatzeko, eta eragile atmosferikoekiko iragazgaitz eta erresistenteak izan behar dute. Zigitatzailearen sakonerak 1 cm edo handiagoa izan behar du, eta lodieraren eta zabaleraren arteko erlazioa 0,5-2 bitartekoa. Fatxada zarpiatuetan, zigitatzea berdindu egin behar da orri nagusi zarpiatu gabearen paramentuarekin. Dilatazio-junturatan metalezko xaflak erabiltzen direnean, junturaren bi aldeetan 5 cm-ko horma-banda, gutxienez, estaltzeko moduan jarri behar dira; xafla bakoitza mekanikoki finkatuko da banda horretan eta hari dagokion muturra zigitatu egingo da (ikus 2.6 irudia).

3. *Kanpoko estaldurak* dilatazio-junturak izango ditu, hartara ondoz ondoko junturen artean aski distantzia izan dadin estaldura ez pitzatzeko.




Figura 2.6 Ejemplos de juntas de dilatación

Dilatazio juntak bolumen berrien eta zaharren artean kokatuko dira proiektuan, materialen desberdinen mugimenduak onartzeko.

2.2.3.2 FATXADAREN HASIERA ZIMENDUETATIK

1. Hesi iragazgaitz bat jarri behar da, kanpoko zoruaren mailaren gainetik 15 cm baino gehiagora fatxadaren lodiera guztia estaliko duena, kapilaritatearen ondorioz urak gora egin ez dezan, edo ondorio berdina sortzen duen beste irtenbide bat erabili.

2. Eraikina material porotsuz eginda dagoenean edo estaldura porotsu bat duenean, zipriztinetatik babesteko, batetik, zokalo bat jarriko da, hurrupaketa-koefizientea % 3 baino txikiagoa duen material batez egina, kanpoko zoruaren mailaren gainetik 30 cm baino gehiagoko garaiera izango duena, hormaren iragazgaizgarria edo hormaren eta fatxadaren arteko hesi iragazgaitza estaliko duena; bestetik, fatxadarekin duen loturaren goiko aldea zigilatu egingo da, edo ondorio berdina sortzen duen beste irtenbide bat erabiliko da (ikus 2.7 irudia).




Figura 2.7 Ejemplo de arranque de la fachada desde la cimentación

3. Zokaloa jartzea beharrezko ez denean, fatxadaren kanpoaldeko hesi iragazgaitzaren errematea 2.4.4.1.2 atalean adierazi bezala egingo da, edo zigilatu egingo da.

2.2.3.3 FATXADAREN ETA FORJATUAREN ARTEKO ELKARGUNEA

1. Forjatuek *orri nagusia* eteten dutenean eta *kanpoko estaldura* jarraitua dagoenean, irtenbide hauetako bat hautatu behar da (ikus 2.8 irudia):

- orri nagusiaren* eta forjatu bakoitzaren artean, forjatuen azpitik, 2 cm-ko lasaiera utziz, desolidarizazio-juntura bat jartzea, zeina, ondoren, *orri nagusia* uzkuritutakoan, forjatuaren aurreikusitako deformazioarekin bateragarria den elastikotasuneko material batez beteko baita eta ura sartzen ez uzteko tantakin batekin babestuko;
- kanpoko estaldura mailasareekin sendotzea, forjatuaren luzera osoan, elementua gaindituz, forjatuaren gainetik 15 cm-raino eta fabrika-obraren lehenengo ilararen azpitik 15 cm-raino.




Figura 2.8 Ejemplos de encuentros de la fachada con los forjados

2. Beste kasu batzuetan jartzen denean ere, arestian aipatutako ezaugarriak izango ditu desolidarizaziojunturak

- aukeraren baliokidea izan daitekeen soluzioa eskeintzen du Egoin® fabrikak bere eraikuntza sisteman.

2.2.3.4 FATXADAREN ETA AROTZERIAREN ARTEKO ELKARGUNEA

1. Eskatutako *iragazgaitasun-maila* 5 denean, arotzeriak fatxadaren kanpoaldeko paramentuarekiko atzeraemanak badaude, aurremarkoa jarri behar da, eta hesi iragazgaitz bat jarri behar da zangoetan *orri nagusiaren* eta aurremarkoaren edo markoaren artean, hormaren barnealderantz 10 cm luzatuko dena (ikus 2.11 irudia). *Iragazgaitasun-maila 3 da, ez da beharrezkoa hau betetzea.*

2. Markoaren eta hormaren arteko juntura kordoi batekin zigilatu behar da, zeina horman sartuko baita, bi ertz paraleloren artean ahokatua geratzeko moduan.




Figura 2.11 Ejemplo de encuentro de la fachada con la carpintería

3. Arotzeria fatxadaren kanpoaldeko paramentuarekiko atzeraemana dagoenean, leiho-koska isurarri batekin errematatu behar da, hara heltzen den euri-ura kanpoaldera husteko eta haren azpiko fatxadaren zatira irits dadila saihesteko. Bestalde, baoburuan tantakin bat jarriko da, euri-ura burualdearen beheko aldetik arotzeriara joan ez dadin, edo ondorio berdina sortzen dituzten irtenbideak.

4. Isurarriak kanpoalderanzko 10º-ko malda izan behar du, gutxienez, eta iragazgaitza izango da, edo markoari edo hormari finkatutako hesi iragazgaitz baten gainean jarriko da (marko edo horma horrek leiho-isurkiaren atzeko aldetik eta bi aldeetatik luzatu behar du eta kanpoalderanzko 10º-ko malda izan behar du, gutxienez). Isurarriak tantakin bat izan behar du irtengunearen azpiko aldean fatxadaren kanpoaldeko paramentutik gutxienez 2 cm-ra bananduta, eta zangotik gutxienez 2 cm-ra banatuta izango du aldea (ikus 2.12 irudia).

5. Tantakinak dituzten piezen junturek haren forma bera izan behar dute, haien bitartez fatxada aldera zubirik ez sortzeko.




Figura 2.12 Ejemplo de vierteaguas

Lehioek arau hauek beteko dituzte, egurrezko markoak izango dituzte eta isurarriak metalikoak izango diren arren baldintza danak beteko dituzte.

2.2.3.5 KARELAK ETA FATXADETA KO GOIKO ERREMA TEAK

1. Karelak isurarriekin errematatu behar dira, haien goiko aldera heltzen den euri-ura husteko eta haren azpian dagoen fatxada-zatira hel dadin ekiditeko. Halakorik ezean, ondorio berdina sortzen duen beste irtenbide bat erabiliko da.
2. Isurarriek, gutxienez, 10º-ko inklinazioa izan behar dute, ura doan alderako irtenguneen azpiko aldean tantakinak izan behar dituzte, kareleko dagozkien paramentuetatik gutxienez 2 cm-ra bananduak, eta iragazgaitzak izan behar dute edo kanpoalderanzko 10º-ko malda (gutxienez) duen hesi iragazgaitz baten gainean jarri behar dira. Dilatazio-junturak jarri behar dira bi piezatik behin, harrizkoak edo aurrefabrikatuak badira, eta 2 metrotik behin, zeramikazkoak badira. Isurarrien arteko junturak zigilatze egoki batekin iragazgaitz izateko moduan egingo dira.

2.2.3.6 FATXADA AINGURATZAILEA

1. Barandak, mastak eta halako elementuen ainguraketak fatxadaren plano horizontal batean egiten direnean, urari bertatik sartzen ez uzteko moduan egingo da ainguraketaren eta fatxadaren arteko juntura; alegia, zigilatuz, gomazko elementu baten bidez, metalezko pieza baten bidez edo ondorio berdina sortzen duen beste elementu baten bidez.

Barandilak metalezkoak izango dira, eta behealdean ura sartzea ekidituko duen dagokion metalezko pieza izango du.

2.2.3.7 TEILATU-HEGALAK ETA ERLAITZAK

1. Teilatu-hegal eta erlaitz jarraituek ura husteko malda bat izan behar dute kanpoalderantz, 10º-koa gutxienez, eta, fatxadaren planotik 20 cm baino gehiago irteten badira, baldintza hauek bete behar dituzte:

- a) iragazgaitzak izatea edo gaineko aldea hesi iragazgaitz batekin babestua izatea, ura bertatik sar ez dadin;
- b) paramentu bertikalarekiko elkargunean babes-elementu aurrefabrikatuak edo *in situ* eginak izatea, gorantz gutxienez 15 cm luzatzen direnak eta goiko errematea 2.4.4.1.2 atalean zehaztu bezala egin dutenak, ura elkargunean eta errematean sar ez dadin;
- c) azpiko aldeko kanpoko ertzean tantakin bat izatea, hustutako euri-ura fatxadaren azpiko aldetik fatxadara hel ez dadin.

2.3 ESTALKIAK

2.4.1. Iragezgaiztasun-maila

1. Estalkiei *iragazgaiztasun-maila* bakarria eskatzen zaie, eta ez du zerikusirik klima-faktoreekin. Edozein *eraikuntza-irtenbidek iragazgaiztasun-maila* hori iristen du baldin eta ondoren zehaztutako baldintzak betetzen baditu.

2.4.2. Eraikuntza soluzioen baldintzak

1. Estalkiek elementu hauek izan behar dituzte:

- malda eratzeko sistema bat: estalkia laua denean, edo inklinatua denean eta haren euskarri erresistentearen malda ez dagoenean erabiliko den babes eta iragezgaizte motara egokitua;
- lurrunaren kontrako hesi* bat *isolatzaile termikoaren* azpi-azpian: «Energia aurreztea» oinarritzko dokumentuko HE1 atalean zehaztutako kalkularen arabera, elementu horretan kondentsazioak sortuko direla aurreikusten denean;
- geruza bereizle* bat *isolatzaile termikoaren* azpian: material kimikoki bateraezinek elkar ukitzea eragotzi behar denean;
- isolatzaile termiko* bat: «Energia aurreztea» oinarritzko dokumentuko HE1 atalean zehaztutakoari jarraikiz.
- geruza bereizle* bat iragezgaizpen-geruzaren azpian: material kimikoki bateraezinek elkar ukitzea eragotzi behar denean edo iragezgaizpena eta sistema ez itsatsietako euskarri-elementuak itsastea saihestu behar denean;
- iragezgaizpen-geruza bat: estalkia laua denean edo inklinatua denean eta malda eratzeko sistemak ez duenean 2.10 taulan eskatutako inklinazioa edo babesgarriko piezen teilakatzea nahikoa ez denean;
- geruza bereizle* bat babes-geruzaren eta iragezgaizpen-geruzaren artean, kasu hauetan:
 - bi geruzak itsastea saihestu behar denean;
 - iragezgaizpenak puntzonaketa estatikoarekiko erresistentzia txikia duenean;
 - babes-geruza gisa honako hauek erabiltzen direnean: zoladura flotatzailea, euskarrien gainean bermatua; legarra, hormigoizko errodadura-geruza bat, morterozko edo landare-lurrezko geruza baten gainean jarritako aglomeratu asfaltikozko errodadura-geruza bat. Azken kasu horretan, gainera, *geruza bereizlearen* gain-gainean, drainatze-geruza bat jarri behar da, eta haren gainean, iragezte-geruza bat. Legarra erabiliz gero, *geruza bereizleak* puntzonaketen kontrakoa izan behar du;
- geruza bereizle* bat babes-geruzaren eta *isolatzaile termikoaren* artean, kasu hauetan:
 - babes-geruza gisa landare-lurra erabiltzen denean; horrez gain, *geruza bereizle* horren gainean, drainatze-geruza bat jarri behar da, eta haren gainean, iragezte-geruza bat;
 - estalkian oinezkoak ibil daitezkeenean; kasu horretan, *geruza bereizleak* puntzonaketen kontrakoa izan behar du;
 - babes-geruza gisa legarra erabiltzen denean; kasu horretan, geruza bereizleak iragezlea izan behar du, agregakin finak pasatzen ez uzteko modukoa eta puntzonaketen kontrakoa;
- babes-geruza bat, estalkia laua denean, iragezgaizpen-geruza autobabestua denean izan ezik;
- teilatu bat, estalkia inklinatua denean, iragezgaizpen-geruza autobabestua denean izan ezik;
- urak husteko sistema bat, erretenez, hustubidez eta gainezkabidez osatua egon daitekeena, OD-HO dokumentuko HO 5 atalean zehaztutako kalkularen arabera neurtua.

2.4.3. Osagaien baldintzak

2.3.3.1 MALDA ERATZEKO SISTEMA

1. Maldak eratzeko sistemak behar besteko kohesioa eta egonkortasuna izan behar ditu eskakizun mekanikoei eta termikoei aurre egiteko, eta gainerako *osagai* eusteko eta haiek finkatzeko moduko osaera izan behar du.

2. Malda eratzeko sistema denean iragezgaizpen-geruzari eusten dion elementua, hura osatzen duen

materialak bateragarria izan behar du material iragezgaizgarriarekin eta, orobat, haren eta iragezgaizgarriaren arteko lotura-moduarekin.

3. Malda eratzeko sistemak, estalki laueta, ura husteko elementuetarantzko malda bat izan behar du, 2.9 taulan adierazitako tarteen barruan sartzen dena, zeina estalkiaren erabileraren eta babes motaren arabera zehazten baita.

Tabla 2.9 Pendientes de cubiertas planas

Uso	Protección	Pendiente en %
Transitables	Peatones	1-5 ⁽¹⁾
	Vehículos	1-5 1-5 ⁽¹⁾
No transitables	Grava Lámina autoprotegida	1-5 1-15
Ajardinadas	Tierra vegetal	1-5

⁽¹⁾ Para rampas no se aplica la limitación de pendiente máxima.

Proiektuko hiru gune puntualetan egongo da sabai laua soilik: Sabaiko aireztapenaren bi instalazio getetan, irekiak izango dira eta, beraz, bertatik ura kanporatu beharko da. Hauetaz gain, sarrera bolumeneko terraza. Beraz, ibilgarriak izango dira eta solatu fijoak izango dutenez 1-5% malda eman beharko zaie.

Patioan ere ura kanporatu beharko da eta inklinazio berbera emango zaio legarraren azpian.

4. Maldak eratzeko sistemak, estalki inklinatuetan, estalkiok iragezgaizpen-geruzarik ez dutenean, 2.10 taulan lortutakoa baino malda handiagoa izan behar du ura husteko elementuetarantz, teilatu motaren arabera.

Tabla 2.10 Pendientes de cubiertas inclinadas

		Pendiente mínima en %		
Teja ⁽³⁾	Teja curva	32		
	Teja mixta y plana monocanal	30		
	Teja plana marsellesa o alicantina	40		
	Teja plana con encaje	50		
Pizarra		60		
Tejado ⁽¹⁾⁽²⁾	Cinc	10		
	Fibrocemento	Placas simétricas de onda grande	10	
		Placas asimétricas de nervadura grande	10	
		Placas asimétricas de nervadura media	25	
	Sintéticos	Perfiles de ondulado grande	10	
		Perfiles de ondulado pequeño	15	
		Perfiles de grecado grande	5	
	Placas y perfiles	Perfiles de grecado medio	8	
		Perfiles nervados	10	
		Galvanizados	Perfiles de ondulado pequeño	15
			Perfiles de grecado o nervado grande	5
	Perfiles de grecado o nervado medio		8	
	Aleaciones ligeras	Perfiles de nervado pequeño	10	
		Paneles	5	
Perfiles de ondulado pequeño		15		
	Perfiles de nervado medio	5		

(1) En caso de cubiertas con varios sistemas de protección superpuestos se establece como pendiente mínima la menor de las pendientes para cada uno de los sistemas de protección.

(2) Para los sistemas y piezas de formato especial las pendientes deben establecerse de acuerdo con las correspondientes especificaciones de aplicación.

(3) Estas pendientes son para faldones menores a 6,5 m, una situación de exposición normal y una situación climática desfavorable; para condiciones diferentes a éstas, se debe tomar el valor de la pendiente mínima establecida en norma UNE 127.100 ("Tejas de hormigón. Código de práctica para la concepción y el montaje de cubiertas con tejas de hormigón") o en norma UNE 136.020 ("Tejas cerámicas. Código de práctica para la concepción y el montaje de cubiertas con tejas cerámicas").

Malda kalkulatu den arren proiektuko estalki inklinatu guztiek eramango dute iragazgaizpen-geruza, Tyvek® etxekoa.

2.3.3.2 ISOLATZAILE TERMIKOA

1. *Isolatzaille termikoaren* materialak sistemaren eskakizun mekanikoen aurrean behar den sendotasuna emateko moduko kohesioa eta egonkortasuna izan behar ditu.

2. *Isolatzaille termikoa* eta iragazgaizpen-geruza kontaktuan daudenean, bi materialok bateragarriak izan behar dute; bestela, *geruza bereizle* bat jarriko da bien artean.

3. *Isolatzaille termikoa* iragazgaizpen-geruzaren gainean jartzen denean eta urarekiko kontaktuaren eraginpean geratzen denean, egoera horri aurre egiteko moduko ezaugarriak izan behar ditu isolatzaille horrek.

Isolatzaille termikoa Tyvek® geruzaz babestu da beti. Sabai lau ibilgarrietan mailazoa txiki bat jarri da isolamendua eta lamina iragazgaitza babesteko akaberarekin hasi aurretik.

2.3.3.3 IRAGAZGAIZPEN-GERUZA

1. Iragazgaizpen-geruza bat jartzen denean, hura osatzen duten materialetako bakoitzari dagozkion baldintzen arabera eman eta finkatu behar da.

2. Ondoren zehaztutako materialak erabil daitezke, edo ondorio berdina sortzen duen beste edozein.

2.4.3.3.1 Material bituminosoz eta bituminoso eraldatuz egindako iragazgaizpena

1. Xaflak oxiasfaltokoak edo betun eraldatuzkoak izan daitezke.
2. Estalkiaren malda % 15 baino gehiagokoa denean, sistema mekanikoki finkatuak erabili behar dira.
3. Estalkiaren malda % 5-15 bitartekoa denean, sistema itsatsiak erabili behar dira.
4. Egitura-mugimenduak hobeto absorbatzearen, iragazgaizgarria eta hari eusten dion elementua bereizi nahi direnean, sistema ez-itsatsiak erabili behar dira.
5. Sistema ez-itsatsiak erabiltzen direnean, babes-geruza astun bat erabili behar da.

2.4.3.3.2 Poli (binil kloruro) plastifikatuz egindako iragazgaizpena

Ez da kasu hau ematen

2.4.3.3.3 Etileno propileno dieno monomeroz egindako iragazgaizpena

Ez da kasu hau ematen

2.4.3.3.4 Poliolefinaz egindako iragazgaizpena

Ez da kasu hau ematen

2.4.3.3.5 Plaka-sistema batez egindako iragazgaizpena

Ez da kasu hau ematen

2.3.3.4 AIRE-GANBERA AIREZTATUA

Aire-ganbera bat jartzen denean, isolatzaille termikoaren kanpoko aldean jarri behar da, eta irekigune

multzo baten bidez aireztatu, halako moldez non haren azalera eraginkor osoaren (S_s , cm²-tan) eta estalkiaren azaleraren (A_c , cm²-tan) arteko zatidurak baldintza hau beteko baitu:

Ez dago aire ganberarik estalkietan.

2.3.3.5 BABES-GERUZA

1. Babes-geruza bat jartzen denean, geruza osatzen duen materialak egurats zabalarekiko erresistentea izan behar du, aurreikusitako giro-kondizioen arabera, eta haizearen hurrupaketari aurre egiteko adinako pisua izan behar du.

a) estalkia ibiltzekoa ez denean, legarra, zoladura finkoa edo flotatzailea, morteroa, teilak eta geruza astun eta egonkorra osatuko duten beste material batzuk;

b) estalkia oinezkoak ibiltzekoa denean, zoladura finkoa, flotatzailea edo errodadura-geruza;

c) estalkia ibilgailuak ibiltzekoa denean, errodadura-geruza.

2.3.3.6 TEILATUA

1. Estaldura-piezaz osatua egon behar du (teilak, arbela, plakak eta abar). Piezen teilakatzea zehazteko, kontuan hartu behar da haiei eusten dien elementuaren malda, eta, orobat, estalkiaren kokalekuari lotutako beste faktore batzuk, hala nola *zona eolikoa*, ekaitzak eta altitude topografikoa.

2. Euskarriari haren egonkortasuna bermatzeko adina pieza itsatsi edo finkatu behar zaizkio, hauen arabera betiere: estalkiaren malda, isurkiaren gehienezko garaiera, pieza mota eta piezok nola teilakaturik dauden, eta eraikinaren kokalekua.

2.4.4. Puntu berezien baldintzak

2.4.4.1 ESTALKI LAUAK

1. Gorde beharrekoak dira errefortzu- eta akabera-bandak, jarraitutasun- edo eten-bandak, eta, orobat, diseinuari eragiten dion beste edozein banda antolatzeako kondizioak, erabilitako iragazgaizpen sistemari dagozkionak.

2.4.4.1.1 Dilatazio-junturak

1. Estalkiaren dilatazio-junturak jarri behar dira, eta ondoz ondoko dilatazio-junturen arteko distantzia **15 m** izango da, gehienez. Paramentu bertikal batekin edo egitura-juntura batekin elkargune bat dagoen bakoitzean, dilatazio-juntura bat jarri behar da haiekin bat. Estalkiaren geruza guztiei eragin behar diete junturek, euskarri erresistente gisa erabiltzen den elementutik abiatuta. Dilatazio-junturen ertzek kamutsak izan behar dute, gutxi gorabehera 45º-ko angelukoak, eta junturaren zabalerak 3 cm baino handiagoa izan behar du.

2. Babes-geruza zoladura finkokoa denean, dilatazio-junturak jarri behar dira hartan. Juntura horiek piezei, heltzeko morteroari eta zoladuraren asentu-geruzari eragin behar diete, eta honela jarri behar dira:

a) estalkiaren junturekin bat eginez;

b) estalkiaren kanpoko eta barneko perimetroan eta paramentu bertikalekiko eta *aldez aldeko elementuekiko* elkarguneetan;

c) lauki-sare eran, gehienez 5 m-ra jarrita aireztatu gabeko estalkietan eta gehienez 7,5 m-ra estalki aireztatuetan, halako moldez non junturen arteko horma-atalen neurriek 1:1,5 erlazioa izango baitute, gehienez.

3. Junturretan zigilatzaile bat jarri behar da, haien barruan sartutako betegarri baten gainean. Zigilatzeak eta *estalkiaren babesgarri*-geruzaren gainazalak berdinduta geratu behar dute.

2.4.4.1.2 Estalkia eta parametro bertikal baten arteko elkargunea

1. Iragazgaizpena luzatu egin behar da paramentu bertikaletik gora, *estalkiaren babesgarriaren* gainetik 20 cm, gutxienez (ikus 2.13 irudia).

2. Estalkiaren eta paramentuaren arteko elkargunea gutxi gorabehera 5 cm-ko kurbadura-erradioarekin biribilduz egin behar da, edo neurri berdintsu bat alakatuz, iragazgaizpen-sistemaren arabera.




Figura 2.13 Encuentro de la cubierta con un paramento vertical

3. Prezipitazioetako ura edo paramentutik lerratzen dena iragazgaizpenaren goiko errematetik sar ez dadin, modu hauetako batean edo ondorio berdina sortzen duen beste edozein modutan egin behar da erremate hori:

a) gutxienez 3 × 3 cm-ko erreten batekin, zeinetan iragazgaizpena lantzerka finkatuko baita morteroz, horizontalarekiko 30º-ko angelua eratuz, gutxi gorabehera, eta paramentuaren ertza biribilduz;

b) atzeraemangune batekin, zeinaren sakonera 5 cm baino handiagoa izango baita paramentu bertikalaren kanpoko gainazalarekiko, eta garaiera 20 cm baino handiagoa estalkiaren babesgarriaren gainetik;

c) goiko aldean gutxienez irtengune bat duen profil metaliko herdoilgaitz batekin, zeinak balioko baitu profilaren eta hormaren arteko zigilatze-kordoi batentzako oinarri gisa. Beheko aldean irtengunerik ez badu, ertza biribildu egin behar da, xafla ez hondatzeko.

2.4.4.1.3 Estalkiaren eta alboko ertzaren arteko elkargunea

1. Modu hauetako batean egin behar da elkargunea:

a) iragazgaizpena gutxienez 5 cm luzatuz teilatu-hegalaren edo paramentuaren aurrealdearen gainean;

b) hegal horizontalarekin angelua egiten duen profil bat jarri —10 cm baino gehiagoko zabalera izan behar du—, isurkian ainguratua, halako moldez non hegal bertikala zintzilik geratuko baita paramentuaren kanpoko aldetik, tantakin gisa, eta iragazgaizpena luzatu egingo baita hegal horizontalaren gainean.

2.4.4.1.4 Estalkiaren eta hustubideen edo erreten arteko elkarguneak

1. Hustubidea edo erretena pieza aurrefabrikatua izango da, erabilitako iragazgaizpen motarekin bateragarria den materialez egindakoa, eta gutxienez 10 cm zabaleko hegal bat izan behar du goiko ertzean.

